

Urriaren 12a: Alde hemendik!!

AMNISTIAREN ALDEKO ETA ERREPRESIOAREN AURKAKO MUGIMENDUA. ::

10/10/2017

El Movimiento Pro Amnistía y Contra la Represión hace un llamamiento a reivindicar que las Fuerzas de Ocupación se vayan de Euskal Herria

Urriaren 12an Hispanitatearen Eguna ospatzen dute batzuek, eta berarekin batera, Spainiar Koroaren izenean Ameriketan 1492an hasitako sarraskia. 1987ko urrian lege bidez ezarri zuten Espainiako “jaiegun nazionala” izango zela eta, lege horren artikulu bakarrean, zera zioten:

“Aukeratutako datak, urriak 12, gure pluraltasun kultural eta politikotik hasitako Estatu baten eraikitze prozesua bukatzean zegoelarik, eta Espainiako erreinuak monarkia bakan batzeko, Europako mugetatik haratago hasitako proiekzio linguistikoa eta politikoaren epea hasi zueneko efemeride historikoa sinbolizatzen du.”

Horrela definitzen ditu Espainiako Estatuak Ameriketan hasitako erailketak, torturak, bortxaketak, arpilatzeak eta garbiketa etniko eta kulturala, eta gainera efemeridea ospatu. Hau, ordea, ez da harritzekoa, izan ere Espainiarren proiekzio linguistikoa eta politikoa ezin baita ulertu biolentziaz egin duen erabilpenik gabe. Eta horrela ulertzen da hobeto urriaren 12a Indar Armatuen eguna ere izatea, bata eta bestea elementu banaezinak baitira.

Mendeak pasatu dira eta bortizkeriaren bidez eraikitako estatu artifizial hark zutabe berberen gainean jarraitzen du zutik. 40 urtetan ezarritako frankismoak, miloika hildako uzteaz gain, Spainia desagerrarazitako pertsonen kopuruaren zerrendan munduko bigarren tokian jarri zuen, Kanbodiaren atzetik, eta errepresioa kontzientzia nazional propioa bizirik mantentzen zuten herriekin tematu zen bereziki, Euskal Herria eta Kataluniarekin alegia.

Alabaina, ez dugu 80 urte atzera egin behar frankismoaren eta bere Indar Armatu zapaltzaileen jarduera errepresiboa ikusteko. Nahikoa dugu Euskal Herriko historia hurbilenenari so egitea Guardia Zibilaren eta Polizia Spainolaren (baita zipaioena ere) erailketak, torturak, bortxaketak, bahiketak eta abar luze bat ikusteko eta Espainiartasuna bortizkeria basatiaren bitartez inposatzen jarraitzen digitela konturatzeko.

Kataluniak gaur egun aurrera daraman prozesu independentistak agerian utzi du berriz espainismoaren aurpegirik ilunena. Agerian utzi du faxismoak bizirik eta dominatzen jarraitzen duela eta egoeraren arabera bere errepresso maila moldatzen duela. Estatu baten autoritarismoa ez da neurten unean erabiltzen dituen bitarteko hertsatzaileengatik, baizik eta erabiltzeko prest dagoenengatik.

Bere askatasun nazionala lortzeko bidean lanabes baketsuak besterik erabili ez baditu ere eta haien aldarrikapen nagusia erreferendum bat egiteko eskubidea izan bada ere, Spainiar Estatuak bozkatzea debekatu eta Kataluniako herria jipoitu zuen.

Kataluniari onartutako konpetentzia apurretako batzuk bertan behera utzi, kaleak gizon eta emakume armatuz bete, Konstituzio espaniolaren 155. artikuluari bidea ireki eta eraso faxistak bultzatu egin ditu Espainiako Estatuak. Arrazoiaren bidez konbentzitu ez baina indarraren bidez garaitu nahi dute Kataluniako herria.

Bide batez, gure mugimenduari gustatuko litzaiok gogoraraztea, hain zuen ere faxismo horren aurka altxatzeagatik daudela oraindik kartzelan, erbestean eta deportazioan horrenbeste euskal errepresaliatu politiko. Batzuek esango dute borrokan erabili zituzten bitartekoak ez dituztela konpartitzen, beste batzuek bide baketsu guztiak agortu eta gero gelditzen zitzaien bide bakarra hartu zutela, baina inork zalantzan jarri ezin duena da haien borroka askatasunaren aldekoa dela eta beraien helburuak guztiz zilegi.

Adierazitako guztiagatik, Amnistiaaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimenduak urriaren 12an Indar Okupatzaileei Euskal Herritik alde egin dezaten aldarrikatzeko deia egiten du, eta hori egiteko manifestazioa antolatu du egun horretan, 12:00etan Plaza Eliptikotik. Urriaren 12an ez dugu ezer ospatzeko! Indar Okupatzaileak, alde hemendik!

Euskal Herria, 2017ko urriaren 10a.

Amnistiaaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimendua.

[Castellano]

El 12 de octubre algunos celebran el Día de la Hispanidad y, con él, el exterminio iniciado en América en 1492 en nombre de la Corona española. En octubre de 1987 decretaron por medio de una ley que dicho día sería la “festividad nacional”, y en su único artículo decían lo siguiente:

“La fecha elegida, el 12 de octubre, simboliza la efeméride histórica en la que España, a punto de concluir un proceso de construcción del estado a partir de nuestra pluralidad cultural y política, y la integración de los reinos de España en una misma monarquía, inicia un período de proyección lingüística y cultural más allá de los límites europeos.”

Así define el Estado español los asesinatos, las torturas, las violaciones, los saqueos y la limpieza étnica y cultural, y además celebra la efeméride. Esto, en cambio, no es de extrañar, ya que la proyección lingüística y política de España no se puede explicar sin la utilización que ésta ha hecho de la violencia. Y así se entiende mejor que el 12 de octubre también sea el día de las Fuerzas Armadas, porque lo uno y lo otro son elementos inseparables.

Han pasado los siglos y ese estado artificial construido mediante la violencia sigue en pie sobre los mismos pilares. El franquismo impuesto durante 40 años, además de dejar millones de muertos, convirtió a España en el segundo lugar en la lista del mayor número de personas a las que se había hecho desaparecer, sólo por detrás de Camboya, y la represión se cebó especialmente con los pueblos que mantenían una conciencia nacional propia, es decir, con Euskal Herria y Catalunya.

Sin embargo, no tenemos que retrotraernos 80 años para ver la acción represiva del franquismo y de sus Fuerzas Armadas opresoras. Es suficiente observar la historia reciente de Euskal Herria para comprobar los asesinatos, las torturas, las violaciones, los secuestros y un largo etcétera, llevados a cabo por la Guardia Civil y la Policía Española (y también los cipayos), y darnos cuenta de que siguen imponiéndonos la españolidad por medio de una violencia salvaje.

El proceso independentista que actualmente desarrolla Catalunya ha vuelto a dejar al descubierto la cara más oscura del españolismo. Ha dejado al descubierto que el fascismo sigue vivo y dominante y que amolda su nivel de represión a cada situación. El autoritarismo de un estado no se mide por los métodos coercitivos que usa en el momento, sino por los que está dispuesto a usar.

A pesar de que el pueblo catalán, en su camino para lograr la libertad nacional, tan solo ha utilizado herramientas pacíficas y de que su reivindicación principal ha sido la del derecho a realizar un referéndum, el Estado español prohibió votar y apaleo al pueblo de Catalunya.

El Estado español ha suspendido algunas de las pocas competencias que tiene Catalunya, ha llenado las calles de hombres y mujeres con armas, ha abierto paso al artículo 155 de la Constitución española y ha fomentado los ataques fascistas. No han convencido mediante la razón pero quieren vencer mediante la fuerza al pueblo de Catalunya.

Aprovechando la ocasión, a nuestro movimiento le gustaría recordar que precisamente por alzarse ante ese fascismo siguen todavía en la cárcel, en la deportación y en el exilio, tantos y tantas represaliadas políticas vascas. Hay quien dirá que no comparte los métodos que utilizaron en su lucha, otros dirán que después de agotar todas las vías pacíficas tomaron el único camino que les quedaba, pero lo que nadie puede poner en duda es que su lucha es a favor de la libertad y que sus objetivos son totalmente legítimos.

Por todo lo expuesto, el Movimiento Pro Amnistía y Contra la Represión hace un llamamiento a reivindicar que las Fuerzas de Ocupación se vayan de Euskal Herria, y para ello ha organizado una manifestación ese día partiendo a las 12:00 desde la Plaza Elíptica. ¡El 12 de octubre no tenemos nada que celebrar! ¡Fuera las fuerzas de ocupación!

En Euskal Herria, a 10 de octubre de 2017.

Movimiento Pro Amnistía y Contra la Represión.

<https://eh.lahaine.org/urriaren-12a-alde-hemendik>